

Jarduerak guztiak eta eskabideak Erakundearen web-orrian ikus daitezke

Kutxabanken udako Gaztedi programak izena emateko epea zabaldu du

- **Tarazona % 100 ingelesez, Athletic Club Kanpusa, 'Bai nahi dut, Araban emakumeen kirola 2018-2022', eta Bakaikuko Barnetegia dira eskari zabalaren osagarri**
- **Interesatutakoek Kutxabank Taldearen online atarian eman ahal izango dute izena, 'Familiak' atalean**

2021ko maiatzaren 14an. Kutxabanken udako Gaztedi programak izena eman ahal izateko epea zabaldu du, **indarrean dauden osasun-segurtasuneko baldintzetara egokituta**, eta ohiko jarduera batzuetan mugatutako plaza-kopuruarekin.

Garai honetan eskari handiena duten programen artean, deigarriak dira **Tarazona % 100 ingelesez** egonaldiak. 8 eta 15 urte arteko gazteei zuzendutako eskaintza da, eta ingelesez emandako ikastaroak eta aisialdiko jarduerak bateratzen ditu, hizkuntza ikasten duten bitartean ongi pasa dezaten.

Athletic Club Kanpusa ere emango da, eta 6 eta 14 urte arteko gaztetxoentzat. Jarduera honetan, jokalari profesionalak ezagutzeko aukera izango dute, ingurugiroko eta nutrizioko tailer bereziak eskainiko zaizkie, Lezaman ohiko futbol entrenamenduak egitearekin batera.

Horrez gain, Vital Fundazioak **'Bai nahi dut, emakumezkoen kirola Araban 2018-2022'** egitaraua berrekin du, 9 eta 15 urte arteko neskei zuzendua, eta kirolaren arloan neska eta mutilen arteko berdintasuna sustatzea helburu duena, emakume kirolarien artean oinarri bat sortzeaz gain.

Eskaintza berritzaileenetako bat **Gasteizko Kanp Teknologikoa** da. 5 eta 17 urte arteko gaztetxoei zuzendutako programazio, elektronikak eta robotika tailerrak dira, lekuan bertan edo online egin ahal izateko aukerarekin, gainera.

Zenbat Gara elkarteak antolatutako **Bakaikuko Barnetegia** euskaraz bizi eta ikasturtean zehar ikasitako erabiltzeko aukera ona da, tailerrak, hitzaldiak, musika, txangoak eta bestelakoak eginez modu dibertigarrian aberasten baita euskara. Barnetegia 16 urtetik gorako nerabeentzat da, eta azterketa ofizialak prestatzen ari direnentzat hezkuntza zehatza ere eskaintzen da.

Gaztedi Programak **plaza kopurua egokitu du, eta osasun bitarteko zehatzak** ezarriko ditu berme osoarekin egin ahal izateko. Nahiz eta jarduera gehienak bertatik-bertara egitekoak diren, zenbait kanpus teknologikok online aritzeko aukera ematen dute.

Jarduera bilatzailea

Jarduerei buruzko informazio guztia eta izena emateko bideak, Kutxabank Taldearen online atarian ikus daitezke, 'familiak' atalean.

Hor bertan jarduera bilatzailea ere aurki daiteke, familiek nahi dituzten baldintzen arabera ekintzat errazago ikusteko. Tresna honen bitartez, lurraldearen, hizkuntzaren, adinaren, jardueraren prezioaren eta dataren arabera bilaketak egin daitezke. Txikienezako jarduerak aukeratzea errazagoa izan dadin, hauetako zenbait erraz ikusteko formatuan agertzen dira gainera.

Oraingoz, atzerrian egiten diren **hizkuntza ikastaroak Frantzian baino ez** dira antolatuko, gainerako atzerriko egonaldiak osasun-egoerak baldintzatuta jarraitzen baitute.

Urteroko Gaztedi Programa Kutxabanken bezeroek atsegin onez hartzen duten abantaila da. Jarduerak banka-fundazioek, edota beren hezkuntza gaitasunarengatik aukeratuak izan diren zentro eta ikastetxeek antolatzen dituzte.